

## GIZA TALDEA

### Langileei buruzko informazioa

2011ko ekitaldia bukatutakoan, Iruñerriko Mankomunitatean 459 langile zeuden (\*), hau da, langileen kopurua %3,97 jaitsi da. Gure erakundearen langileak 11 lan zentrotan aritzen dira lanean, Iruñerriko Mankomunitateak ematen dituen zerbitzuek instalazioak eremu geografiko jakin batzuetan kokatzea eskatzen dutelako.

Lan zentroa	Jarduera	Pertsona kopurua					
		2009		2010		2011	
Generoa		G	E	G	E	G	E
<b>Bulegoak</b>							
Chinchilla jenerala k. 7. Iruña. Imaz anaiak kalea, 1. Iruña.	Zerbitzu zentralak eta instituzionalak	100	69	98	68	92	69
<b>Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua</b>							
Navas de Tolosa k., 29. Iruña.	Bezeroendako arreta telefonikoa, aurrez aurrekoa eta idatzizkoa.	5	20	5	23	5	20
<b>Edateko Uren Araztegia (ETAP)</b>							
Urtasun, Egillor eta Tiebas,	Eugiko urtegiko, Artetako iturburuko eta Itoitz-Nafarroako ubideko ura tratatzea eta edateko ur bihurtzea	45	5	46	7	42	6
<b>Sare zein instalazioen mantentze-lanen tailerra</b>							
Agustinos industrialdea. Iruña	Biltegiko ura banatzeko sare eta instalazioen mantentze-lanen zerbitzua	81	5	80	4	81	5
<b>Hondakin-uren araztegia (EDAR)</b>							
Arazuri	Ur-hondakinak araztea	36	15	39	15	40	14
<b>Hiri Hondakinak Tratatze Zentroa (CTRU)</b>							
Gongora	Hiri-hondakinen tratamendua	71	23	64	20	59	19
<b>Garbigunea</b>							
Agustinos industrialdea eta Morea merkataritza zentroa	Etxe-hondakin berezien bilketa	9	1	8	1	6	1
Partziala guztira		347	138	340	138	325	134
<b>Guztira</b>		<b>485</b>		<b>478</b>		<b>459</b>	

Enpresak finko eta mugagabe kontratatze politikari eusten dio bere plan estrategikoen garapen eraginkorrari begira, pertsonak dakarten kudeaketarako gaitasuna eta ezagutza baliatuz. Urtearen

bukaeran, langileen %89,76k kontratu finko eta mugagabea zuen. Dena dela, aldi baterako kontratazioa beharrezkoa da zenbait kasutan, aldi baterako jubilazioak eta aurreratuak ordezkatzeko. Gainerako aldi baterako kontratazioak unean uneko beharrei erantzuteko egiten dira, honako hauei, esaterako: absentismoa, proiektu zenbaiten garapena edo lan eskaera handiak. Irizpide hori aintzat hartuta, langileen %10,24k aldi baterako kontratua du.

(\*) 463 langile dira guztira, eta 4 kontratua bertan behera uzteko egoeran daude.

## Langileak, kontratazio motaren arabera

Urtea	2009		2010		2011	
	G	E	G	E	G	E
Langile finkoak	311	114	309	116	296	116
Aldi baterako langileak	34	25	31	22	29	18
<b>Guztira</b>	<b>345</b>	<b>139</b>	<b>340</b>	<b>138</b>	<b>325</b>	<b>134</b>

Langileen ezaugarriari dagokienez, batez besteko adina 47 urtekoa da, eta batez beste, 16 urteko antzinatasuna dute. %71 gizonak dira eta %29 emakumeak.

## Langileak, lanbide kategoriaren arabera

Urtea	2009		2010		2011	
	G	E	G	E	G	E
Zuzendariak	11	4	10	4	9	4
Goi mailako tituludunak	34	22	37	19	36	23
Teknikariak	96	9	76	26	71	24
Administrariak	8	70	10	69	8	64
Profesionalak	110	14	118	2	116	2
Espezialistak	88	19	89	18	85	17
<b>Guztira</b>	<b>347</b>	<b>138</b>	<b>340</b>	<b>138</b>	<b>325</b>	<b>134</b>

Langileen kudeaketa administratiboak bermatzen du enpresaren eta langileen arteko harremanak egokitzea legezko eta ohiko araudiari, besteak beste, gai hauetan: kontratazioa, eskubideen eta betebeharren arteko oreka, lanaren banaketa edo honen ordaina... Legearekin bat datorren kudeaketaren aldeko gehieneko begiruneaz gain, beste xede bat daukagu: erakundearen pertsonen gehieneko gogobetetzea alderdi hauen ezagutzaren zein inplikazioaren bitartez.

## Absentismoari buruzko informazioa

	2009	2010	2011
Hitzartutako lanaldi guztiaren gaineko portzentajea	7,1	5,75	6,12
Gaixotasunek eta istripuek eragindako portzentajea	5,61	3,7	4,53
Haurdunaldiek eta amatasunak eragindako portzentajea	0,81	1,07	1,09
Lan hitzarmenaren baimenek eragindako portzentajea	0,51	0,57	0,49
Maiztasuna: kasu kopurua, batez besteko langile kopurua kontuan hartuta	3,59	3,8	3,87

Iraupena: ordu kopurua, kasu guztiak kontuan hartuta	31,53	23,85	25,17
Lanaldia	1.592	1.592	1.592

## Aparteko orduei buruzko informazioa

	2009	2010	2011
Aparteko orduak guztira	921,65	533,9	502,27
Aparteko orduen portzentajea, hitzartutako lanaldia kontuan hartuta	0,58	0,34	0,31
Aparteko orduak, langileen batez bestekoa kontuan hartuta	1,89	1,17	1,08